urtebetera. 2. Arau-haustea egin den egunaren biharamunean hasiko da arau-haustearen preskribitzeko epea. Jarraian egin diren arau-hausteen kasuetan, arau-haustearen azken gertakaria burutu den egunetik aurrera zenbatuko da epea edo legez kontrako egoera bukatu denetik aurrera".

Beraz, Administrazioak sei hilabeteko epea dauka arau-haustea egin zenetik dosier zigortzaile abiarazteko. Dosier honetan, arau-haustea 2010eko martxoaren 27an egin zen, eta abiarazteko probidentzia 2010eko uztailaren 23koa da.

Hori guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legean aurreikusitako eskumenak baliaturik –Tokiko Gobernu Batzarrak 2007ko ekainaren 20ko erabakiaren bidez beraren gain utzitako aginpidea dela medio–, Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkariak hauxe erabaki du:

"Disfraz" establezimenduaren titularra den Jesús Ángel García Sáez jaunak dosier zigortzailea ebazten duen dekretuaren kontra 2011ko otsailaren 2an aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa ezestea, eta dekretua osorik berrestea.

Ezin izan zaionez horren berri San Antonio kaleko 13.ean (behea) dagoen "Disfraz" tabernaren titular den Jesús Ángel García Sáez jaunari eman, posta zerbitzuak jakinarazpena atzera itzuli baitu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan adierazitako eran argitaratzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 24an.– Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkaria, ALBA CAÑADAS MORA.

dos años y las impuestas por infracciones leves al año. 2. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquél en que la infracción se hubiera cometido. En los casos de infracción realizada de forma continuada, tal plazo se comenzará a contar desde el día en que se realizó el último hecho constitutivo de la infracción o desde que se eliminó la situación ilícita."

Por consiguiente, la administración cuenta con un plazo de seis meses para poder incoar un expediente sancionador desde que se comete la infracción. En el presente expediente la infracción se cometió el día 27 de marzo de 2010 y la providencia de incoación es de fecha 23 de julio de 2010.

Es por lo que la Concejala-Delegada del Área de Medio Ambiente en uso de las atribuciones previstas en la Ley 57/2003, de medidas de modernización del Gobierno Local, y de conformidad con la delegación otorgada por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 20 de junio de 2007, resuelve:

Desestimar el recurso de reposición presentado por Jesús Ángel García Sáez titular del establecimiento "Disfraz" contra el decreto de resolución del expediente sancionador con fecha 2 de febrero de 2011, confirmando el meritado decreto en todas sus manifestaciones.

Que al no haber podido ser notificada dicha comunicación a Jesús Ángel García Sáez, titular de Bar Disfraz, en Calle San Antonio 13 bajo, al haber sido devuelta por el servicio de correos, se proceda a su publicación en la forma prevista en el Art. 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Bases del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de mayo de 2011.– La Concejala-Delegada del área de Medio Ambiente, ALBA CAÑADAS MORA.

## VITORIA-GASTEIZ

GIZARTEGINTZA

*Gizarteratzea*

**3608**

**Zainpeko etxebizitza batean sartzea onartu izanaren berri emateko iragarkia.**

Eskumena duen organoaren 2011ko maiatzaren 2ko ebazpen bat zela medio, pertsona bat zainpeko etxebizitza batean sartzea onartu zen, finkatutako lan-plana eta zentro horretako barne araudia betetzea baldintzatzat jarrita.

30/1992 Legearen 37.2 artikuluarekin bat etorriz, eta bertan adierazitako intimitate-eskubidea bermatzearren, ez da bidezko banan-banako identifikaziorik egitea; hortaz, ebazpenek eragin diezaieketela uste dutenek, Gizartegintza Sailean aztertu ahal izango dituzte dosierrak, San Prudentzio kaleko 30-32.ean, jendaurreko orduetan, zuzenean nahiz azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 32. artikuluan zehaztutako betekizunak betetzen dituen ordezkari baten bidez.

Interesdunak jakinaren gainean egon daitezen ematen da argitara, banakako jakinarazpenaren ordez.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 26an.– Gizarte Gaien Arloko zinegotzi ordezkaria, PEIO LÓPEZ DE MUNAIN LÓPEZ DE LUZURIAGA.

## VITORIA-GASTEIZ

INTERVENCIÓN SOCIAL

*Inserción Social*

**3608**

**Anuncio por el que se notifica admisión de acceso a un Piso Tutelado.**

Por resolución del órgano competente, de fecha 2 de mayo de 2011, se resolvió la admisión de acceso de una persona a un Piso Tutelado, condicionando su estancia al cumplimiento del Plan de Trabajo establecido y de la normativa interna de dicho recurso.

De conformidad con el artículo 37,2 de la Ley 30/1992, y en garantía del derecho a la intimidad que en él se reconoce, no se procede a la identificación individual, por lo que, quienes pudieran estimarse afectados por la resolución antedicha o por medio de representante que reúna los requisitos exigidos en el artículo 32 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, podrá examinar el expediente en el Departamento de Intervención Social, C/San Prudencio 30-32, durante el período de atención al público.

Lo que se hace público para conocimiento de los interesados a quienes debe de servir de notificación individual.

Vitoria-Gasteiz a 26 de mayo de 2011.– El Concejal-Delegado del Área de Asuntos Sociales, PEIO LÓPEZ DE MUNAIN LÓPEZ DE LUZURIAGA.

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA ETA PLANGINTZA

*Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketa*

**3626**

**Behin betiko onestea "Gasteizko Txagorritxu ospitalea" hiri antolakuntzarako 18. plan bereziaren lehen aldakuntza, zein Osakidetzak aurkeztu baitu.**

Hauxe erabaki zuen udalbatzarrak 2011ko maiatzaren 20an egindako aparteko osoko bilkuran:

## VITORIA-GASTEIZ

URBANISMO-PLANIFICACIÓN

*Planeamiento y Gestión Urbanística.*

**3626**

**Aprobación definitiva de la 1ª Modificación del plan especial de Ordenación Urbana nº 18, Hospital de Txagorritxu de Vitoria-Gasteiz presentada por Osakidetza.**

En sesión extraordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento el día 20 de mayo de 2011, se adoptó el siguiente acuerdo:

Gaia: Behin betiko onestea “Gasteizko Txagorritxu ospitalea” hiri antolakuntzarako 18. plan bereziaren lehen aldakuntza, zein Osakidetzak aurkeztu baitu.

ERABAKI-PROPOSAMENA

Osakidetzako Arkitektura eta Ingeniaritza Zuzendariordetzak aurkeztutako “Txagorritxu ospitalea” Gasteizko 18. hiri antolakuntzarako plan bereziaren 1. aldakuntzaren proiektua ikusi da.

2011ko otsailaren 25ean, Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko “Txagorritxu ospitalea” hiri antolakuntzarako 18. plan bereziaren proiektua onestea eta plan horren lehen xedapen aldakuntzari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Dosierra jendaurrean jarri da hogei egunerako, ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezterik izan dadin.

Iragarkia 2011ko martxoaren 18ko ALHAOn –33 zk.– eta 2011ko martxoaren 15eko El Correo zein Diario de Noticias de Álava egunkarietan argitaratu zen. Halaber, Gizarte Segurantzaren diruzaintzaren ordezkaritzan ere jakinarazi zen. Erreklamaziotarako epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren 5.03.29 artikuluak III. kategoriaren berariazko baldintzei buruz araututakoaren arabera, eraikuntzako elementu guztiak zehazten dituen hiri antolamenduko plan berezi bat idatzi beharko da nahitaez, zeinean bereziki alderdi hauek zehaztuko baitira: eraikuntzak definitzeko oinarrizko elementuak, hala nola garaierak, solairu kopurua, hegalak, ibilgailuentzako aparkalekuak, erabileren bateragarritasuna eta antzeko beste batzuk.

Gasteizko udalbatzak 2009 abenduaren 18an eman zion behin betiko onespena Hiri Antolakuntzarako 18. Plan Bereziari (Txagorritxu Ospitalea). Planak Txagorritxu ospitalean kanpo kontsulten eraikina egingo den lursailean aplikatu beharreko hirigintza baldintzak zehaztea du xede.

Proposatutako aldaketak 53. etxadiko 2., 999. eta 6. katastro zenbakietako lursailei eragiten die, eta honakoak gehitzen dizkio indarrean dagoen plan bereziari: hego-mendebaldean dagoen gunea (hiruki itxurakoa) eta bide publiko sailkapena duen gune urbanizatua, bertako gune librea barne (erdibitzailea).

Hiri Antolakuntzarako Plan Berezi horren aldakuntzari dagokion proiektuan jaso dira haren xedea, ekimena, kokapena eta egungo egoera, aurrekariak, haren egokiera eta beharraren justifikazioa, proposamenaren deskribapena, indarrean dagoen plangintza eta dagokion dokumentazio grafikoa.

2011ko otsailaren 18an, Udaleko Hirigintza eta Plangintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzuak Plan Berezia aldatzeko proiektuaren aldeko txosten teknikoa aurkeztu zuen, eta antolamenduko tresna horren aldakuntzari hasierako onespena ematea proposatzen zuen bertan, baina baldintzapean: behin betiko onespenaren aurretik hainbat baldintza tekniko betetzea. Jendaurreko aldian proiektuak bete ditu baldintza horiek.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen dira plan partzial eta berezien izapidetze eta onespena.

Aipatutako 2/2006 Legearen IV. kapituluaren seigarren atalak planeamenduaren aldakuntza eta berrikuspena arautzen du eta konkretuki 104. artikuluak xedatutakoaren arabera, hirigintza planen zehaztapenetan edozein aldakuntza egiteko plan mota bera erabili beharko da, baita zehaztapen horiek onesteko jarraitutako prozedura bera baliatua ere.

Asunto: Aprobación definitiva de la 1ª modificación del plan especial de Ordenación Urbana nº 18, Hospital de Txagorritxu de Vitoria-Gasteiz presentada por Osakidetza.

PROPUESTA DE ACUERDO

A la vista del proyecto de la primera modificación del plan especial de Ordenación Urbana nº 18, Hospital de Txagorritxu, presentada por la representación de la subdirección de arquitectura e ingeniería del Servicio Vasco de Salud Osakidetza.

Resultando que, en virtud de acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 25 de febrero de 2011, se procede a la aprobación del proyecto y a la aprobación inicial de la primera modificación puntual del plan especial de Ordenación Urbana nº 18 “Hospital de Txagorritxu” en Vitoria-Gasteiz.

Resultando que se somete el expediente a información pública por el plazo de veinte días mediante anuncios en el BOTHA y en uno de los diarios de mayor circulación de éste para que cuantas personas se consideren afectadas puedan formular las alegaciones y observaciones que estimen pertinentes.

Resultando que se publica este anuncio en el BOTHA nº 33 de 18 de marzo de 2011 y en los diarios El Correo y Diario de Noticias de Álava de 15 de marzo de 2011 y se notifica a la representación de la Tesorería General de la Seguridad Social con fecha 8 de abril de 2011, sin que en el periodo habilitado al efecto se haya formulado reclamación alguna.

Resultando que el Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz vigente dispone en su artículo 5.03.29, al regular las condiciones particulares en categoría III, que la precisión de todos los elementos de la construcción, y en especial los elementos básicos definitorios de las construcciones y edificaciones, tales como alturas, número de plantas, vuelos, aparcamientos para vehículos, compatibilidad de usos y otros análogos serán objeto de regulación a través de la obligatoria redacción de un plan especial de Ordenación Urbana.

Resultando que el plan especial de Ordenación Urbana nº 18, Hospital de Txagorritxu, fue aprobado definitivamente por acuerdo plenario del ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz con fecha 18 de diciembre de 2009 y tiene por objeto detallar las condiciones urbanísticas a aplicar a la parcela en la que se realizará un edificio de consultas externas en el Hospital de Txagorritxu.

Resultando que la modificación que se propone afecta a las parcelas catastrales nº 2, nº 999 y nº 6 de la manzana 53, incorporando al vigente plan especial la zona sensiblemente triangular localizada en el suroeste y la zona urbanizada y calificada como vía pública y espacio libre, localizada entre ambas

Resultando que en el proyecto correspondiente a la modificación de este plan especial de Ordenación Urbana se hace constar el objeto del mismo, la iniciativa, el emplazamiento y estado actual, los antecedentes, la justificación de su conveniencia y oportunidad, la descripción de la propuesta, el planeamiento vigente, así como la documentación gráfica procedente.

Resultando que se ha emitido informe técnico favorable al proyecto de modificación del plan especial con fecha 18 de febrero de 2011 por el servicio de Planeamiento y Gestión Urbanística del departamento Municipal de Urbanismo-Planificación, en el que se propone proceder a su aprobación inicial de la citada modificación del instrumento de planeamiento condicionada al cumplimiento de determinadas condiciones técnicas que debían incorporarse con carácter previo a la aprobación definitiva del mismo y que han sido introducidas en el proyecto durante el periodo de exposición pública.

Considerando que el ámbito y contenido de los planes especiales se establece en los artículos 69 y siguientes de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Considerando que los artículos 95, 96 y 97 de la citada Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo regulan la tramitación y aprobación de planes parciales y especiales.

Considerando que la sección sexta del capítulo IV de la misma Ley 2/2006 regula la modificación y revisión del planeamiento y concretamente el artículo 104 dispone que la modificación de las determinaciones de los planes urbanísticos deberá realizarse a través de la misma clase de plan y observando el mismo procedimiento seguido para la aprobación de dichas determinaciones.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (Tokiko Gobernua Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua) 127.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskumena hiri antolakuntzarako tresnen proiektuak onesteko, eta behin-behineko edo behin betiko onespena ematea Udalbatzari dagokio.

Udalbatzari dagokio planeamendu orokorrari hasierako onespena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako instrumentuen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onespena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i artikuluak (Tokiko Gobernua berritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua) dioenaren arabera.

Proposatutako planteamenduarekin bat etorriz, dosierrean jasotako hirigintzako agirietan haren beharra eta egiteko egokiera justifikatuta daudelarik, aipatu diren arauak kontuan harturik, Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak –Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak osatua– 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, eta Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Arloko zinegotzi ordezkariak hala proposaturik, Hirigintzako Irizpen Batzordeak hau aurkezten dio Udalbatzari:

ERABAKIA

1.- Behin betiko onespena ematea kanpo kontsulten eraikina egingo den lursailean aplikatu beharreko hirigintza baldintzak zehazteko asmoz Osakidetzako Arkitektura eta Ingeniaritza Zuzendariordetzak aurkeztutako hiri antolakuntzarako 18. Plan Bereziaren lehen aldakuntzari. Hori guztia aurkeztutako agiriekin bat non aldakuntzaren xedea, deskribapena eta justifikazioa eta dagozkion antolakuntza planak jasotzen baitira. Agiri horiek dosierrera bildu dira.

2.- Erabaki horrek agortu egiten du administrazio bidea, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da berorren kontra, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, adierazitako epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 30ean.– Alkate lehendakaria, PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

ALDATURIKO ARAUAK

1.4. Kokalekua

Jarduera-eremu berri honek guztira 76.451,91 m$^2$-ko azalera dauka (64.394,70 m$^2$ 2. lursailean, 53 etxadia, orain ospitalea dagoen tokia; 5.349,28 m$^2$ 999 zenbakiko lursailean, 53 etxadia, bide publikoetarako dena, eta 6.707,93 m$^2$ 6. lursailean, 53 etxadia, kanpo kontsultetarako eraikin berria egin nahi den tokian). Horietatik 69.011,41 m$^2$ ekipamendu komunitario sanitario-asistentzial moduan kalifikatuta daude (63.265,77 m$^2$ Txagorritxu ospitalearen lursaila, eta 5.745,64 m$^2$ alboko lursail triangeluarrak).

1.5. Hirigintza justifikazioa

| | HIRIGINTZA ARAUDI ALDATUA PLAN BEREZIAREN ARABERA |
|---|---|
| Atzeraemangune minimoa berdegunera, Esparru libreetara. | 3 m |
| Bere alturaren atzeraemangunea bide-ardatzera, berdegunera edo esparru libreetara | Mendebaleko lursailean, Kanpo Kontsulten eraikinean: 1/3 h = 15 m Gainerakoa: 2/3 h |
| Gehieneko altuera | 15,50 m arte= ehuneko 100 15,50 m – 35 m= ehuneko 50 35 m – 45 m. = ehuneko 15 |
| Eraikigarritasuna | 2 m$^2$c/m$^2$s Eragindako bi lursailei dagokienez |
| Okupazioa | ehuneko 60 |
| Erabilera | Ekipamendua Sanitario-Asistentziala |
| Sotoak | 4 |

Considerando que el artículo 127.1.c) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003 de Medidas para la modernización del Gobierno Local, atribuye a la Junta de Gobierno Local la aprobación de los proyectos de instrumentos de ordenación urbanística cuya aprobación definitiva o provisional corresponda al Pleno.

Considerando que el artículo 123.1.i) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003 de Medidas para la modernización del Gobierno Local, atribuye al Pleno la aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística.

De conformidad con el planeamiento propuesto, cuya conveniencia y oportunidad se justifican en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vista la regulación a la que se ha hecho referencia, esta comisión de Urbanismo, en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 122.4.a) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, a propuesta del Concejal Delegado del Área de Ordenación del Territorio y Vivienda, eleva al Pleno de la Corporación el siguiente

ACUERDO

1º- Aprobar definitivamente la primera modificación puntual del plan especial de Ordenación Urbana nº 18 Hospital de Txagorritxu en Vitoria-Gasteiz presentado por la subdirección de arquitectura e ingeniería de Osakidetza, con objeto de incorporar una nueva zona donde ubicar el futuro edificio de consultas externas, todo ello de conformidad con la documentación presentada que consta en el expediente y en la que figura el objeto, la descripción y justificación de la modificación y los planos de ordenación correspondientes.

2º.- Publicar el presente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa y contra el que puede interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación, o bien, con carácter potestativo recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado este acuerdo en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación y, contra la resolución expresa o presunta de éste, recurso contencioso-administrativo ante el citado Juzgado en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la notificación de la resolución desestimatoria del recurso o en el plazo de seis meses a contar desde el día siguiente a aquél en que se produzca la desestimación presunta del recurso.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de mayo de 2011.– El alcalde-presidente, PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

NORMATIVA MODIFICADA

1.4. Emplazamiento

Este nuevo ámbito de actuación, tiene una superficie de 76.451,91 m$^2$ (64.394,70 m$^2$ en la parcela nº 2, manzana 53, donde se ubica el Hospital actualmente, 5.349,28 m$^2$ en la parcela nº 999, manzana 53, destinada a viales públicos y 6.707,93 m$^2$ en la parcela 6, manzana 53, donde se pretende situar el nuevo edificio de consultas externas), de los cuales 69.011,41 m$^2$ están calificados como equipamiento comunitario sanitario-asistencial (63.265,77 m$^2$ parcela Hospital Txagorritxu y 5.745,64 m$^2$ la parcela triangular colindante).

1.5. Justificación urbanística

| | NORMATIVA URBANÍSTICA MODIFICADA SEGÚN PLAN ESPECIAL |
|---|---|
| Retranqueo mínimo a Zona Verde, Espacios Libres | 3 m |
| Retranqueo de su altura al eje viario, Zona Verde o Espacios Libres | En la parcela oeste que recogerá el edificio de Consultas Externas: 1/3 h = 15 m Resto: 2/3 h |
| Altura máxima | Hasta 15,50 m= 100 por cien 15,50 m – 35 m= 50 por cien 35 m – 45 m. = 15 por cien |
| Edificabilidad | 2 m$^2$c/m$^2$s Respecto a las dos parcelas afectadas |
| Ocupación | 60 por cien |
| Uso | Equipamiento Sanitario Asistencial |
| Sótanos | 4 |

3. Etapa-plana

Plan Berezi honetan aipatzen den aparkalekua Kanpo Kontsultetako eraikinarekin batera egingo da. Eta ez da egingo Kanpo Kontsultetako eraikinaren obra-bukaera aldez aurretik aparkaleku-eraikina jaso ez bada.

3. Plan de etapas

El aparcamiento a que hace referencia este plan especial se realizará conjuntamente con la ejecución del edificio de consultas externas. No se realizará el final de obra del mencionado edificio de consultas externas, sin que se haya recibido previamente el edificio de aparcamiento.

## VITORIA-GASTEIZ

OSASUNA ETA KONTSUMOA

*Osasungarritasun eta Kontsumo Arloa*

**3609**

**Higiene eta osasun baldintzak hausteagatik dosier zigortzailea abiarazi izana jakinarazteko iragarkia.**

Eskumena duen organoak 2011ko martxoaren 29an emandako ebazpenaren bitartez, Bar Plaza tabernaren titularraren aurkako dosier zigortzailea abiaraztea erabaki zen, Osasungarritasunari buruzko Lege Orokorraren 35.a 1 artikuluan ezarritako arau-hauste arinagatik.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 61. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta jakinarazpenaren iragarkiak eskubideei eta bidezko interesei kalte egin diezaiekeenez, labur-labur argitaratuko da egintzaren edukia; dosierra Osasun eta Kontsumo Sailean dago (San Bizente aldapa, z/g), interesatuek edo beren ordezkariek eskuratzeko moduan, goizeko 08:30etik 14:00etara, 10 eguneko epean ebazpen hau argitaratzen egunetik, egintzaren eduki osoa jakin dezaten eta jakinaren gainean daudela jasoarazi ahal izateko.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 1ean.– Osasun eta Kontsumo Saileko zuzendaria, JUAN JOSÉ ESTIBÁLEZ GONZÁLEZ.

## VITORIA-GASTEIZ

SALUD Y CONSUMO

*Área Sanitaria y de Consumo*

**3609**

**Anuncio por el que se notifica resolución de incoación de expediente sancionador en condiciones higiénico-sanitarias.**

Por resolución del órgano competente de fecha 29 de marzo de 2011 se acordó incoar expediente sancionador al titular del establecimiento Bar Plaza por infracción leve prevista en el artículo 35.a.1 de la Ley General de Sanidad.

De conformidad con el artículo 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y pudiéndose lesionar la publicación del acto derechos o intereses legítimos, se procede en la publicación a una somera indicación del acto, y poniéndole de manifiesto que el expediente se encuentra a disposición de los interesados o sus representantes en el departamento de Salud y Consumo, sito en la Cuesta de San Vicente s/n durante en horario de 8:30 a 14:00 horas, y en el plazo de diez días desde la publicación de esta resolución, para conocimiento del contenido íntegro del mencionado acto y constancia de tal conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 2011.– El director del departamento municipal de Salud y Consumo, JUAN JOSÉ ESTIBALEZ GONZÁLEZ.

## VITORIA-GASTEIZ

OSASUNA ETA KONTSUMOA

*Osasungarritasun eta Kontsumo Arloa*

**3610**

**Higiene eta osasun baldintzei buruzko dosierraren berri emateko iragarkia.**

Eskumena duen organoak 2011ko apirilaren 13an emandako ebazpenaren bitartez, Bar El Puerto tabernaren titularrari 2011ko martxoaren 14ko 17592 zenbakiko aktan adierazitako hutsak hilabeteko epean konpon ditzala eskatzea erabaki zen.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 61. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta jakinarazpenaren iragarkiak eskubideei eta bidezko interesei kalte egin diezaiekeenez, labur-labur argitaratuko da egintzaren edukia; dosierra Osasun eta Kontsumo Sailean dago (San Bizente aldapa, z/g), interesatuek edo beren ordezkariek eskuratzeko moduan, goizeko 08:30etik 14:00etara, 10 eguneko epean ebazpen hau argitaratzen egunetik, egintzaren eduki osoa jakin dezaten eta jakinaren gainean daudela jasoarazi ahal izateko.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 1ean.– Osasun eta Kontsumo Saileko zuzendaria, JUAN JOSÉ ESTIBÁLEZ GONZÁLEZ.

## VITORIA-GASTEIZ

SALUD Y CONSUMO

*Área Sanitaria y de Consumo*

**3610**

**Anuncio por el que se notifica requerimiento en expediente de condiciones higiénico-sanitarias.**

Por resolución del órgano competente de fecha 13 de abril de 2011 se acordó requerir al titular del establecimiento Bar El Puerto para que en el plazo de un mes procediera a la subsanación de las deficiencias enumeradas en el acta nº 17592 de fecha 14 de marzo de 2011.

De conformidad con el artículo 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y pudiéndose lesionar la publicación del acto derechos o intereses legítimos, se procede en la publicación a una somera indicación del acto, y poniéndole de manifiesto que el expediente se encuentra a disposición de los interesados o sus representantes en el departamento de Salud y Consumo, sito en la Cuesta de San Vicente s/n durante en horario de 8:30 a 14:00 horas, y en el plazo de diez días desde la publicación de esta resolución, para conocimiento del contenido íntegro del mencionado acto y constancia de tal conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 2011.– El director del departamento municipal de Salud y Consumo, JUAN JOSÉ ESTIBALEZ GONZÁLEZ.